

Kristalezko hiria

Solasaldia Harkaitz Canorekin

2025eko martxoak 13

Literatura plazara (Intxaurrondo)

— **SAIOAREN AURKEZPENA.** Ikasturte amaieran hurrengo ikasturteko irakurgaiak hautatu ohi ditugu urtero, edo duela hiruzpalau urte-edo idazleren bat ere gonbidatzen hasi ginen. Iazko maiatzean aurtengo liburuen eta idazle gonbidatuen inguruko ideiak eta gogoak biltzen ari ginela, kideen artean ideia-jasa egin bitartean bi gogo hauek aipatu zituzten: batetik, Harkaitz Canorekin solasean aritzeko gogoia adierazi zuten (baina azken poesia liburua hartzeari errespetu handiegia zioten), eta, bestetik, Paul Austerren heriotzaren testuinguruan, Austerren lanen bat ezagutzeko gogoia adierazi duten (gehienek ez ziotelako ezer irakurrita). Bi gogo horiek bat egin, eta proposatu nuen *Kristalezko hiria* komikia komentatzea, Austerren mundu literariora hurbiltzeko niretzat giltzarri izan zena, eta zeu ere, Harkaitz, Austerren ekarpena euskal literaturaren esparrura ekarri izan duzulako (hitzaldiekin, aipuekin, hitzaurreekin...). Komikian murgildu aurretik, bi gonbidatuak aurkeztuko ditugu, lehen-lehenik, Harkaitz Cano, eta, ondoren, Harkaitzi lekukoa emanda, *Kristalezko hiria* komikia.

— **HARKAITZ CANOREN AURKEZPENA.** Idazlea zara, Harkaitz, askotariko zentzuetan eta adarretan (poeta, nobelagile, gidoigile, kronika egile, saiakera egile, itzultzaile...). Hitzaren arkitektu, askotariko eremutan. Gaurkoan, itzulpen-lan baten aitzakia hartuta elkartu gara, zurekin literaturaz, hitzaz, arteaz, idazletzaz, itzulpenaz... askotariko erdibitze, bikoizte, adarkatze horiez aritzeko. *Ulu egiteko bolondres bila* azken poesia liburuan, “espezializatu egin behar zenuke” gomendioaren oihartzunez aritu zinen poema batean. Poema irakurri, eta helduko al diogu espezializazioaren auzi horri?

ESPEZIALIZATU

EGIN BEHAR ZENUKE

Bai, badakit. Kasu egin behar nioke.
Burutsu jokatu, lehenetsi,
betelana baztertu, hau laga, hura egin,
gutxiago baina hobeto, tentuz aukeratu:
“Jada ez dauzkazu hoge urte”.

(Ezta berrogei ere, hara bestea).

Asmo irmoa hartu dut, hasiko naiz
ezezkoak esaten: gonbidapenei uko
talentua maxkaldu aitzin. Ez dut idatziko
hitzaurrerik batere, ez dut aurkeztuko
kolegen libururik; ez dut kolaboratuko
egunkarietan, hitzik ez kantariantzat.

Akabo komiki gidoiak;
agur poesia jaialdiei, *sayonara baby*
bidaiak eta kongresuak,
utikan irakurle txokoak, idazketa tailerrak,
solasaldirik ez X idazleak Y poetaren obran
izan zuen balizko eraginaz; amaitu dira
erakusketetako katalogoak, ez naiz joango

mahai inguruetara gehiago, ez dut sinatuko
manifestu futuristik, salaketarik, gutunik.

“Zentratu egin behar zenuke”, esan dit.
Eta nik badakit arrazoi duela. Aukeratu
behar nukeela musikaren eta zinemaren artean;
Hollywood ala Kiarostami, *kitsch* ala klasiko,
bohemia ala sistema, buhardilla ala koktela;
jolaserako ala borrokarako nagoen,
Deabru izan

nahi ote dudan
ala aitortza entzule;

“Hautatzen ikasi behar duzu,
iheskorrago izan,
erabaki —ezertan izatekotan—
zertan zaren berezi, ez hainbeste
argitaratu”.

Mea culpa, mea culpa, badakit!

Esan dit “kokatu” egin beharko nukeela
eta —hitzez hitz—
“nitxo bat bilatu ikusgarriago izateko”.
Lasai arraio bota dit
bikoitza kobratu
eta erdia lan egin beharko nukeela.

Hara! Interesatzen zait.

Kontsideratzera noa, kontsideratzera noa...

Eta erabaki dut azkenik naizen horretan
espezializatzea: oilategian kilker,
txukundadean anabasa, interesik gabeko
kanbio-letra,
—eta ene lagunen lagun, pentsatu nahi nuke—;
testu
barreiatu,
asterisko triku
oin oharretan xahutua,
talentu hala moduzkoa, noizbehinkako
aurkikuntzen paseatzaile,
ezerezaren
eminenzia,
aldakor eta dibertitu diren gauzen zokomian beti,
zianuroan plazera
bilatzen duena
eta bere burua sabotatzean
aurkitzen duena
—gutxienez—
pozaren
erdia.

Gure zorionerako, oraindik ezezoak ematen ez zara hasi. Espezializazio goserik izan al duzu sekula?

— **KRISTALEZKO HIRIA KOMIKIAREN AURKEZPENA.** 2006. urtean argitaratu zen *Kristalezko hiria* komikiaren euskarazko bertsioa. Garaitu hartan Paul Austerren oihartzuna han-hemen entzuten zen gaztelerazko prentsan, besteak beste, urte horretan bertan Asturiasko Printzearen saria jaso zuelako, eta testuinguru hartan argitaratu zituen Alberdaniak ere Austerren itzulpenak, Oskar Aranak itzuliak: *Brooklingo erokeriak, Bidaiak scriptoriumean zehar*. Testuinguru hartan kokatzen da *Kristalezko hiria* komikiaren itzulpena. Bazuen giro hori aldeko, baina haize kontra ere aritu zineten itzulpen-lan horrekin, komiki itzulpena zelako, garai hartan gutxi hedaturiko jarduna euskaraz. Harkaitz, zeuk noiz-nola ezagutu zenuen Paul Austerren lana? Nondik-nora ezagutu zenuen *Kristalezko hiriaren* komiki egokitzapena? Nondik nora sortu zen itzulpen aukera hau? Zer izan zenuten alde? Zer izan zenuten kontra?

OHARRA. Aurkezpenaren ondoren, lehen txanda bat egitea proposatuko dut, irakurleek (nahi dutenek) liburuaren inguruko irakurraldiaren lehen inpresio batzuk partekatzeko, lehen sentsazio batzuk ekartzeko hizpidera. Batzuen inguruan unean bertan hitz egin dezakegu, eta beste batzuk josten joan gaitezke solasaldiak aurrera egin ahala.

KRISTALEZKO HIRIA KOMIKIAREN INTERPRETAZIOAZ

Komikian aipatzen diren hainbat gai aipatuko ditugu, gairik gai joateko, komikiak askotariko hariak korapilatzen dituelako.

— **New York eta hiri-ibiltariak**

BAT. Daniel Quinn hiri-ibiltari irudikatzen zaigu liburuaren hasieran, Stillman jauna ere hiri-ibiltari ageri da liburuak aurrera egin ahala. Hitzaurrean aipatzen duzun moduan, New York eta hiri-ibiltariaren imajinario hori angelu askotatik lantzen du Paul Austerrek, ezta? Baudelaireren flâneur edo hiri-ibiltariaren begiradari bestelako ertz batetik heltzen diola iruditzen zaizu? Komikiaren formatuak (poesiak edota narrazioak ez bezala) hiri-ibiltari horretaz aritzeko zer aukera ematen du? [nahi duzun bidetik heldu gaiari, gero zeuk aipaturiko gaien arabera, nik gai hauek ere hartuko ditut: hiriaren irudikatze sinbolikoak (labirintoa, hatz-marka), hiriaren historiaren oihartzunak, hiriaren kartografia...].

[Hiri-ibiltariaren inguruko gogoeta honetan agian gai hauek ere aipa daitezke, zeuk nahi duzun ikuspegitik, eta kontura datorrela ikusiz gero: hiri-geografia jakin batek duen lekua Austerren literaturan, patuaren eta kasualitatearen oihartzunak Austerren literaturan, bizi-ibilbideen gurutzatzeak Austerren literaturan...].

Taldekidetegi egingo diedan gonbidapena: irakurleei galde diezaiekegu New York hiriaren irudikatzeak gogoetarik sortu dien, edota hiri-ibiltariaren irudi horrek zer pentsatua eman dien.

BI. Hala ere, nobelan izan bada hiritik ibiltzerik ez duen pertsonaia bat, Peter Stillman semea (ume basatiekin parekatzen dena, baina ez dena basoan bizi izan, baizik eta gela

itxi batean). Hiriko kanpo-espazioak eta barne-espazioak tentsioan jartzen dira halakoekin? Peter Stillmanen pertsonaia hori irudikatzeko moduak forma berezi bat hartzen du komikian, ezta? Izan bada une hori arrotze une bat komikia irakurtzean, irakurleoi istorioak hartuko duen norabidearen lehen zeinu edo abisu dena, ezta? [jauzika doan ahots narratiboaz gain, jauzika doazen irudiak daude, logika jakin baten hausturak edo etenak irudikatzen dituztenak] [Zeuk aipaturikoaren arabera, neuk gai hau ere hartuko dut: izan badira hiriko espazioan geldirik dauden edo dorpe dabilzan pertsonaiak edo hiritarrak, hiritar lauso modura ere irudikatzen direnak komikian Daniel Quinnen begietara].

Taldekideei egingo diedan gonbidapena: zein inpresio hartu duzu Peter Stillman hizketan hasten denean? Pertsonaia horren bizi-ibilbidea kontatzen zaigunean?

HIRU. Harkaitz, New York ere izan zenuen bizileku, New York izan duzu inspirazio-gune. Hiri-ibiltari hori ere izan duzu poesiagai edo gogoetagai. *Norbait dabil sute-eskaileran* poesia liburuko bi poema ekarri ditugu hona [neure proposamena da poemak irakurtzea, eta gero irakurleekin komentatzea: alde batetik, ikusteko zeure literaturak eta poetikak zein gaitan edo osagaitan egiten duten bat Paul Austerrekin, eta, beste alde batetik, genero-ikuspegiari ere leku egiteko, bi poema horiek elkarriketan irakurrita, egon badagoela genero-ikuspegi interesgarri askoa -hasierako lanetan Paul Austerrek emakumeak ez zituen ispilu, erdibitze edo bikoizte ariketa horietan garatu, ibilbideak aurrera egin ahala, presentzia hori bestelakotu zen-].

FGL

Aurpegi baten bila hiria zeharkatu duenak soilik dakizkien gauzak.

Jainkoa ikusi dutela
begirada anker bat maitasunezko batetik bereiztea
ezinezkoa den orduan
sute-eskaileran behera
berandu eskolara
bus leihoetako lurrunean marrazkiak egiten dituen
haurraren izua bezala berandu.

Aurpegi baten bila hiria zeharkatu duenak soilik dakizkien gauzak.

Ehun begi pareko piztia esnatzen da hiria
eta pertsiana bakoitza begi bailitzan irekitzen dela
poliki tiraka neska bat tiraderari.
Eta duela berrehun urte jaio izan balitz
itsasontzi bateko belak
tinkatuko zituzkeela neska horrek.

Aurpegi baten bila hiria zeharkatu duenak soilik dakizkien gauzak.

New Yorkeko portuan
beren ogibide bakarra
leiho altuak irekitzea den langileak
ehunka etorkizun igarleekin pilatzen direla
Hudson ertzean oihuka:

«Hor doa, hor doa hemendik sei urtera
olibondoen artean fusilatuko duten poeta!»

Anartean Federicoren aurpegia ezkututzen da
kamarotean
ulertu gabe entzun gabe ikusi gabe jakin gabe
amorante guztien bizkar hotzetan dabiltzala
Rimbaud eta Lizardi
berataz galdezka.

SYLVIA PLATHEN LEHENGUSINA

Ibilera segurua
zapaltzen zenuen espaloian konfiantza
janzkeran ere zorionaren pertsonifikazioa
jaka laranja eta niki more marraduna
lanera nindoala
balkoitik eskuaz agur egiten zenidanean.
Gure animo amilduen burkoa
telefonoz deitzean kafe bat hartzeko beti prest
bizitzarekin berak kendutakoarekin
emandakoarekin bezain esker oneko beti
inoiz ez arazo samalda leherketarik
inoiz ez kexu bat zure ezpainenetan.
Aurpegi alaia, erlaxatua,
begietan epeltasun historiaurrekoa.

Eta badakizu zer den gehien izorratzen nauena?
Zu bezalakoak direla
azkenean
itotzear zeudenak uretatik ateratzeko soka hartu
eta soka horrekin
beren burua arrametara urkatzen lehenak.

— Metaliteratura eta literaturaren oihartzunak

BAT. Ikertzaile bat (edo ikertzaile baten simulakroa) du ardatz komikiak, nobela beltzen idazle dena. *Don Quijote* nobelarekiko antzekotasun batzuk ere aipatu izan dira, zer-nola ikusten duzu lotura hori? *Don Quijoten* zaldunen nobelak irakurtzearen irakurtzeaz bere burua zalduntzat duen pertsonaia bat irudikatzen du. Hari horretatik tiraka, nobela beltzak idazten dituen idazlea halako batean ikertzaile lekua hartzen du: nobela beltzen eta detektibe nobelen inguruko zer gogoeta hauspotzen duela iruditzen zaizu? Zer ari da ikertzen egiazki Daniel Quinn?

BI. Pertsonaien izenekin ere lotura bereziak egin izan ditu Paul Austerrek, eta *Kristalezko hirian* ere izenek oihartzunez josita daude. Paul Auster bera ere izendatzen da komikian. Izenen oihartzun horiek eta jolas horiek, komikian izendatze-jolas izateaz gain, jolas grafiko ere bihurtzen da batzuetan. Izenen jolas horretara erraz lotu zara? Zein izen-keinu egin zitzaizun hurbilekoen edo deigarrien?

Taldekideei egingo diedan gonbidapena: izenekin eginiko lotura berezi horiek identifikatu dituzue?

HIRU. Paul Austerren irudikatze grafikoa ere ageri da nobelan. Daniel Quinnek, aldiz, ez du Paul Austerren itxurarik, ala bai? Nobelan zeuk gogoan al duzu Daniel Quinn Paul Austerren itxurara osatu zenuen edo bestelako itxuratze bat eman zenion? Zer iruditzen zaizu komiki egokitzapenaren hautu grafiko hori?

Idazle itxuraz ari garela, idazle bisaiaz ari garela, *Ulu egiteko bolondres bila* bildumako poema bat ekarri dut hona:

BOOKFACE

Idazleen kasuan ere, ezin uka,
axola du itxurak.
Ez da doakoa, kasu, Rimbaudek,
lepoko begizta okertuarekin itxurakeria eta
jende zintzoaren gustua mespretxatuz
eternitatea ukitu zuenean,
ez Facebook ez Instagramik
ez existitu izana.
Marguerite Duras norbaitek goizegi
bartzetzeko asmoz zimurtutako
nerabearen erretratua izatea,
sugarretatik *in extremis* salbatua.
Ez gutxietsi, Nobel saria jaso berri,
Harold Pinterrek
kazetarietarako bekainean
tiritak bat zuela egin izana ongi etorria.
Beckett, bekozko-masailak
intxaur porrokatu gabearen pare.
Sontag eta ile glazialaren irakaspena.
Houellebecqen utzikeria narrasa,
eszeptikoa edo sinesgabea,
nobelagintzaren ahalmen plakoari dion
fede xaloak soilik traizionatua.
Paul Auster: Amerikan zahartu
ahal izan duen Kafka ederrago bat.
Salingerri lapurtu zioten
argazki bakarreko keinu sumindua.
Saramagoren *dortoka sapiens* jakinduria naturala.
Lilya Brik ulukaria, altaboz eternala;
Virginia Woolfen betazaletako pisua;
Maiakovskiren kasko larru-arras moztua,

literaturaren historian lekutxo bat
aldarrikatu duten hainbeste burezurren
oroitarazle; agur eta ohore.
Eta, nola ez, Highsmith, Patricia;
katuak bezain zital,
beti haien konpainian, norbait despistatzeko zain.
Walt Whitmanen bizarra, erlauntza joria.
Lorcaren irribarrea, lihozko jakarekin erosia.
Cortazar, begi biko Tartalo handia.
Anne Sexton, edertasun orbangabeko maldizio sorta.
Cheever, eskumuturreko erlojuen
iragarle aldizkarietan.
Eta zer esan Bukowskiri buruz, adiskideok,
haren arlote bizarrak, marka zuriko
gominaz, ile lakatuaz?

Idazleen kasuan ere, ezin uka,
axola baitu itxurak:
gutxik irakurriko dituzte zure poemak,
askok miatuko bisajea, ordea:
“Nik ulertzen nuen bera, zierto,
aurpegian du poemarik onena”.

— Erdibitzeak, bikoizteak, bikiak eta ispilu-jokoak...

BAT. Austerren hainbat lanetan gertatu bezala, matriuska itxura hartzen du istorioak, istorio baten barruan arakatu eta beste istorio bat ageri delako, eta abar. Aldi berean, pertsonaia bikiak han-hemen ageri dira, ispilu-jokoak sortzen dituzten pertsonaiak ugariak dira... Bikoizte eta erdibitze adarkatu horiek guztiek *Kristalezko hiria* komikian grafikoki gorpuztu dira (nobelan ez bezala). Bikoizte eta erdibitze horien arteko loturak zer-nola josi dituzu zeuk? Idazletzaren bikoizte baten edo erdibitze baten kontaketa dela iruditu al zaizu?

Taldekideei egingo diedan gonbidapena: nola bizi izan dituzue erdibitze horiek? Jolasean sartu al zarete?

BI. Erdibitze eta bikoizte horiek komikian bikoizte grafiko ere badira. Egokitzapen grafiko horrek zer gehitu dio istorioari? Zer kendu dio istorioari?

HIRU. Itzultzaile-lanetan zeuk ere bikoizketa-lan bat egin behar izan duzu nolabait. Itzulpenaren inguruko zeure poema bat hartuko dugu lehenik, itzulpen-lanaz aritzeko:

ITZULPENAREN DEFINIZIO BATEN BILA

- Bidean galtzen dena
- Bidean galtzen ez dena
- Bidean topatzen dena

- Bidean apurtzen dena
- Ateak ilunpean irekitzearen artea
- Ogibide bat
- Zaldi kontrabandoaren pareko delitua
- Manipulazioaren negozioa
- Adimen artifizialaren pagotxa
- Filologoen aparkalekua
- Gaizkiulertuen negutegia
- Boterea pitzatzeko modu bat

Oker ez banago, lehen komiki-itzulpena izan zenuen hauxe, gerora beste batzuk ere egin dituzu, baita komiki-gidoiak ere. Atzera eginda, zer-nolakoa izan zen itzulpen-lan hura? Zertan asmatu zenuela uste duzu? Gaur eguneko begiradatik, eta komikigintzan duzun eskarmentutik, zer berrikusiko zenuke?

— ITXIERA, Paul Auster in memoriam

Ixteko, Paul Austerren poema bat irakurriko dugu, *Kristalezko hiria* liburuko hainbat gairekin lotura duena: hitzaren izendatzeko gaitasunaren galera, haragi pentsalariaren zauria, barne-hitzen korapiloak, nortasunaren bilaketa, patuaren indarra...

NEURE BURUAREN OROIGARRI

Geldirik geratzea baino ez.

Nire ahotsa mututu den tokian
berriz hasterik banu bezala,
ni neu banintz bezala

ahoska ez dezakedan hitz bat.

Hainbeste isiltasun,
haragi pentsalari honen baitan
biziberritzeko, hitzen
danbor tarrapatatsuaren
baitan, hainbeste hitz

nire barneko mundu zabalean
galduak, eta halere jakin ahal izatea
neure gogoaren kontra

hemen naizela.

Hau mundua balitz bezala.